OIASSO
irun MUSEOA

OIASSO MUSEOAREN KUDEAKETA POLITIKA

Oiasso Museoaren xedea Irungo arkeologia-ondarea babestea eta zabaltzea da, Oiasso antzinako hiriaren aurkikuntzak, hala nola termak, portua, nekropolia edo meategiak, publikoari hurbil eta ulertzeko moduan eskainiz.

Oiassoren iraganaren ikerketa eta balioztatzearekiko konprometituta, museo hau espazio dinamiko bat da, etengabeko jarduera kulturalarekin: erakusketak, tailerrak, ikastaroak eta hitzaldiak, kontzertuak, Bidasoko Nazioarteko Zinemaldi Arkeologikoa (FICAB) edo erreprodukzio historikoaren jaialdia (Dies Oiassonis). Museoa, horren testuinguruan, erreferentzia da mundu erromatarrean interesatuta daudenentzat, familiak, ikasleak, nagusiak eta historia, arkeologia eta ondare kulturalaz gozatzen duten guztiak.

Oiasso Museoan gure konpromisoak:

1. **Irunen eta inguruan aurkitutako ondare arkeologikoa zaindu, interpretatu eta zabaltzea**, ikuspegi garaikide, inklusibo eta erantzukizunez.
2. **Kudeaketa eta Hobekuntza Etengabekoarekin konpromisoa**, kudeaketa eraginkor, gardena eta emaitzetara bideratua adoptatuz, taldea parte-hartzaile gisa sustatuz, gure jardueren ebaluazio sistematikoa eginez eta gure prozesuen hobekuntza etengabea bultzatuz. Ikaskuntza, erantzukizuna eta bikaintasunean oinarritutako kultura antolakuntza garatzen dugu.
3. **Berrikuntzaren eta Teknologiaren bultzada**, museoko esperientzia aberasteko, ondarea hobetzeko eta gure zerbitzuak optimizatzeko berrikuntza erabiltzen. Teknologia digitalak eta metodologia sortzaileak txertatzen ditugu, komunikazio eta ikaskuntza modu berrietara egokitutako proposamen irisgarriak, dinamikoak eta egokiak eskaintzeko.
4. **Irisgarritasun Unibertsala bermatzea**, gure espazio, zerbitzu eta edukien irisgarritasun fisikoa, sentsoriala, kognitiboa eta digitala ziurtatuz. Gure helburua da pertsona orok, gaitasun edo baldintza gehiagorekin, museoa osorik gozatzea eta jardueretan parte hartzea.
5. **Jasangarritasunarekiko konpromisoa**, gure jarduera ikuspegi jasangarri batetik garatuz, gure jardueren ingurumen-inpaktua minimizatuz, baliabideen erabilera erresponsablea sustatuz eta ingurumen eta ondarearekiko begirune-balioak bultzatuz. Erakusketetan, ekitaldietan eta kudeaketa barneko pratiketan jarduera jasangarriak babesten ditugu.
6. **Gizarte eta Kultura Erantzukizuna**, gure komunitatearen bizitza kultural eta hezitzailean aktore gisa jardunez, tokiko entitateekin, ikastetxeekin eta gizarte-taldeekin loturak eginez. Irekiak, aniztasunezkoak eta balio demokratikoekin, pentsamendu kritikokoarekin eta aukera berdintasunekin konprometitutako erakunde bat helburu dugu.

Oiasso Museoaren Kudeaketa Sistema tresna bat da, prozesu finkatuak, eraginkorrak, efizienteak eta errepestuzkoak, pertsona guztiekin eta ingurumenarekin, lortzeko aukera ematen duena. Sistemaren helburua da gure bisitarien eta erabiltzaileen, baita interes-talde guztien, espektatibak asebetetzeko orientatutako zerbitzuen kalitatea mantentzea eta hobetzea.

Oiasso Museoan giza talde bat gara, Laneko Segurtasun eta Osasun Plan egokia duenak, taldean lan egiten duena eta modu arduratsu eta profesionalean parte hartzen duena, eta bere ahaleginak zuzendu egiten ditu interesa duten taldeen gaur egungo eta etorkizuneko behar eta espektatibak ulertzera eta betetzera, baita ingurumenaren zaintzara ere. Uste dugu modu honetan behar eta espektatiba horiei erantzuteko gai izango garela, zerbitzuaren kalitatea, berrikuntza, irisgarritasuna eta jasangarritasuna bermatuz, eta lanpostuaren segurtasuna zainduz.

Kudeaketa barruko etengabeko hobetzea aktibo beharrezkoa dela uste dugu, eta Oiasso Museoaren arduradun gisa, ezartzen den hobekuntza helburuak lortzeko beharrezko baliabideak esleitzea eta interes-taldeei egindako jardueren inguruko informazio garrantzitsua eta egiazkoa modu garden batean komunikatzea konpromiso bezala hartzen dut.

Aizpea Goenaga

Oiasso Museoko zuzendaria

2025eko Ekainaren 24ean